

## Pedro José P. Astarloa (1751-1821)

Apolojista aundiaren anaia. Durango'n jaio zan, bere anaia lez. Santa Ana elizan bateatua. Markiñarra eban ama, ta berak diñoskunez, Markiña'n azia dogu. Orixe gaitik «Markiñakua da —diño— nire euskera, aintxe azi nintzalaiko». Nun osotu zitun bere len-ikasketak, nundik nora ibilli yakun areik menderatu arte; orreitatik gitxi baiño ez dakigu.

Prantziskotarra. Jantzia Bilbao'n artu eban, itxura danez. Ordena barruan maisu izan zan, Filosofia ta Teologia erakutsirik. Gizaseme argi ta asko ikasia. 1816'an prantziskotarren Kantauri probintziko Aita Nagusiaren onulari (kontsejeru) genduan; eta gerotxoago, 1818'an, Aita Probintzial izentadu eban Gazteiz'en euki eban lekaide batzarrean. Eta iru urteak amaitu baiño len il zan Bilbao'n, 1821'eko epaillean.

Etzan baketsu joan aren kargualdia, azkenengo urte biak batez bere. Gogora, 1820'garrenaren asieran, nola jeiki zan Riego ta zelan jarri eban Kadiz'ko Konstituziñoa. Etziran, ez, egun gozoak. Fernando VII'garrenak, azke ta

bere-berez ontzat artu eban legeri barria: praille guztiak gotzaiñen menpean jarri bear izan eban, baita Konstituziñoa aintzakotzat artu be. Ekaitz gogorra, inñolaz bere Aita Astarloa'rentzat.

**Euskal idazle.**—Liburu bi, edo obeto, liburu bat idatzi eban, ale bitan: **Urteko Domeka guztietarako Berbaldi ikasbidekuak** (Bilbao, 1816, lenengoa; ta Bilbao, 1818, bigarren). Bata Eusebio Larunbe'renean, 275 orrialde, ta bestea Pedro Apraiz'enean, 290 orrialde. Eurotan dator, ugari be ugari, euskaldun arima-zaiñak bere eliztarra emon bear dautsen ikasbidea; baita euskaldun kristauak jakin egin bear daberen guztia be.

Zek beartu alen ontara? Astarloa'k berak diño: liburuari jarri eutsan aurre-lan, ta ikusirik —diño— zenbat on-ikurri leizan euzkeraz ifiniriko irakasbidiak, atsekabe andi bat euzkeran eustan Tretoko batzarren gogorarija geure erretjetan bete bagen guztiak. Sarri, eta sarri emon eustan, neuk lan au egin teko goguak; baiña jakitiak enitizala duin onetarako, neure ezitakite, neure sortasun eta neure as-

tuntasuna gaitik, atzeratuten nintzaban. Denpora luzian egon nintzaban zer egin jakin baga; baiña azkenez altsubago edo poderosuago izan zan, liburu euzkerazko onek ekarri al leikezan mesedien gurarija, neure duineztasunen ezaueria baiño; eta alan azartu nintzan euzkerazko lan au artuten».

Eta arima-zaiñak zuzenduko eutsien bere irakatsia; orreik, bada, Bizkaia'n zear semogille ibillirik oartu zanez, ez eban nora joririk euren iganderoko itzaldiak egi-terakoan. Eta orixegaitik, «errazago izan leijen jaiegun guztietan prediketia», osotu ditu berbaldi onek. Apaiz gazteentzat dira, batez bere. «Sartu barri askok —diño— ezta kije ez nundik asi, ez ze liburu autu... ez zelan euzkerara itzuli. Baiña liburu au euki ezkeron, eztauke Arimazainak ikasbidia ez azaldu edo espliketako atxakijarik. Ementxe daukez berrogeta amairu Berbaldi euzkerazko, zeintzubetan dagan Erromako Irakasbide guztija».

Ortaz, urteko igendeen inguruan ainbat itzaldi biribildu zituan, euronan bananduaz Kristau Ikasbidearen zatiak, ots, Kredo, Sakramentuak eta Jaungoikoaren eta Eleizearen aginduak. «Egoki bana-

tuta dauka lana —diñosku A. Aranguren'ek—, eta gai guztiak aztertzen ditu zeatz eta garbi».

Ba-eban beste asmo berezi bat be: erria dotriñaz eskolatu. Garai aretan meza nagusietan bakar-bakarrik egin oi zan itzaldia; eta, jakina, asko geratzen ziran meza nausi ortarako joan eziñik, gazte asko gaiñera bizibideko zerbait ikasten kanpora joanak ziran. Oneik be nun dotriña ikasi euki egien, osotu eban bere lana. Onela itzaurrean: «Neguko gabetan sutondoan gorubetan, edo beste zereginetan dagozarian, murmuraziño, ipuin ezai, berba lotsagarri ta barriketa gangar orde, alkarri doktrina itandu, eta dakijanak ezta kijanari irakasten emongo balitz, gunaso, ugazaba, seme ta krijadu guztiak ondo edo ondo jakingo leuke... Eztago atxakijarik doktrina ez jakiteko, gizonik sor eta astunegak; itxasi leize, benetan nai baleu».

Liburu guztiak, otze, naiz ta urte berean idatziak izan, erabat osotusak ditugu. Lenengoak 26 berbaldi daukaz, 11 Kredoaren azalpenerako ta 15 Sakramentuenerako. Bigarrenak, oster, 27 ditu; 19 Jainkoaren legeko aginduak azalduaz eta 9 Eleizearenak adieraziaz. Lenengo liburuan, oiez gaiñ, beste za-